

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERNEDOKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea 7. poligonoko 141. zenbakiko lurzatiaren doako lagapenaren eta jabari aldaketaren espedientea**

Udal honek, 2020ko abuztuaren 12an egindako bilkuran, onespena eman dio 7. poligonoko 141. zenbakiko lurzatiaren doako lagapenaren eta jabari aldaketaren espedienteari, Arabako Foru Aldundiak A-126 errepidea -39,160 KPren (A-126 errepidearekiko gurutzagunea) eta 40,480 KPren artean (Bernedoko industrialdea)- egokitzeko obrak egiteko onetsitako ondasun eta eskubideak okupatzeagatik. Finka horren azalera 750,52 m<sup>2</sup>-koa da.

Hori guztia argitara ematen da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. eta 83. artikuluetan eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 110.1.f) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta jendaurrean jartzen da, 15 eguneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Bernedo, 2020ko abuztuaren 18a

*Alkatea*

*RUBÉN MARTÍNEZ CRESPO*